

## *Paisaia kulturala*

Jakoba Errekondo, Asier Galdos

Nekazaritzatik abiatuta eta paisaiaren diseinua lantzeko garaian, gure kezka kulturalak izugarriko eragina du. Herri guztienak bezala, gure herriaren bizikera eta bizi duen lurraldearen historia batera doaz. Gure lurretan gure kultura guztiak daude, gure amaren amaren amak pentsatu eta egiten zuena barne. Hau dela eta guk sortu, landu, eratu, sustatu egiten ditugun paisaia guztiak kulturazkoak dira; estetika hutsetik urrun. Ez gara ikuskizun soila diren paisaietan bertan gozo gelditu zaleak. Paisaia lurraldearen antolaketa da, ekonomia da, hirigintza da, bizi kalitatea da, iraunkortasuna da, auzolana da, politika da... paisaia herria da.

## *Paisaia*

2000. urtean Florentzian adostutako Europako Paisaiaren Konbentzioak honela definitzen du paisaia: «Paisaia, jendeak ikusten duen edozein lurralde zati da, eta bere izaera naturaren eta gizakiaren eraginen, edota beraien arteko elkarreraginen ondorio da».

Beste era batera esanda, lurrazalean antzematen den forma eta ezaugarri geologiko, biologiko eta antropikoen multzo bakoitza da paisaia. Beraz paisaiak oinarritzko hiru alde nabarmen ditu:

- Alde fisikoa: paisaia lurraldea da. Lurra historia geologiko eta klimatiko baten ondorio da. Etengabe aldatzen ari diren baldintza klimatikoek eta geologikoek lurrazalean eragiten dute. Eragin honek paisaiaren euskarri den lurrazala gupidarik gabe aldatzen du. Beraz, paisaia guztiak oinarri-oinarritik mugikorrek eta aldakorrek dira. Honek lurrazal bakoitzean bizi den bizidunen multzoa, ekosistema ere, aldakorra izatea dakar.
- Alde antropikoa: garaian garaiko eta tokian tokiko herri bakoitzaren ohitura kulturalak, ekonomiak, garapen teknologikoak eta horiek ingurumenarekin izan duten elkarreraginak medio, paisaia sortu, aldatu, eraldatu eta garatu egiten da.

Beraz gizakiaren eraginak, lehenaz gain, aldakorra den lurraldea eta ekosistema are gehiago aldakortzen ditu.

- Alde subjektiboa: gizakiak, ikusle soil gisa, hauteman eta interpretatzen duena.

### *Paisaia kulturala*

Euskal Herriko egungo paisaiak gizakiaren ohitura kulturalak edo bizitzeko era eta ingurumenaren prozesu ekologikoen arteko konbinazioaren emaitza dira. Une historiko bakoitzaren paisaia honako hauek definitzen dute: garaiko ohizko bizimoduaren teknika kulturelek, berezko espazioa-denbora egitura edo etxeak eta aberastasun biologiko eta ingurumenaren kalitate bereziek.

### *Bizi ala hil*

Aipatutako eran, paisaiaren eta kulturaren ezaugarri oinarrizkoena aldagarritasuna da. Natura edo paisaiaren oinarri fisikoa mutantea da. Ezinezko orekaren bila, mutatu eta mutatu ari da. Klima bezalako baldintza ekologikoen aldaketa guztietara egokitu beste aukerarik ez du. Hauxe da bizitzeko borroka, kaosaren oreka.

Naturari bezala, kulturari ere halatsu gertatzen zaio. Kultura bakoitza bizi duen herriak nahitaez egunez egun berriak diren

baldintzetara egokitu beste aukerarik ez du. Nekazaritza, abeltzaintza, industria, merkataritza, garraioa, zerbitzuak, turismoa, aisia, hedabideak, hizkuntzak... gure eguneroko bizimoduan eragina duten arlo guztietako aldaketetara jarri behar gara. Gure kulturaren irautetik bizitzerako aldea horixe da.

Paisaia etengabe egokitzen da, naturan nozitzen diren aldaketetara bezala, historian zehar herrien kulturei lotutako garaian garaiko teknologien eraginetara. Natura, aldatu ala hil. Kultura, iraun ala bizi. Paisaia kulturala, bizi ala hil. Hil arte bizi.

### *Ekosistemaren emana*

Historian zehar, garai bakoitzean, kultura bakoitzak bere bizimodua asetzeko lehengai iturri soiltzat jo du natura. Honek, gehiegizko ustiapena ekarri du eta bide honetatik jarraituz gero, kulturen eta gizakiaren beraren etorkizuna zalantzan dagoela jabetzen ari gara. Kezka honetatik abiatuta sortu da iraunkortasuna landu beharra. Iraunkortasuna, eramangarritasuna, jasangarritasuna izen gehiegi ditu gure ustez txarra den definizio batek. Iraunkortasunaren ohiko definizioa honako hau baita: «*etorkizuneko aukerak zalantzan jarri gabe egungo belaunaldien premiak asetzea*». Premiak eta aukerak

bakoitzak bereak ikusten dituenek, definizio hau ustela da.

Multinazional, enpresa txikitzaile eta politikari ustelenak garapen iraunkorraz egiten ari diren erabilera maltzurra dela-eta, zientzialari aurreratuenen proposamenaren arabera, «garapen iraunkorra» beharrean «ekosistemaren emana» erabili behar da. Honek, dugun eta garen guztia bizi dugun ekosistemari zor diogula argi eta garbi azaltzen du.

Gure ustez iraunkortasuna hau da: paisaia batek sortzen duena, izan behar du bertako naturarentzako eta bertan bizi diren gizataldearentzako eta kulturarentzako, ez beste inorentzako.

Hona paisaia eta kulturaren arteko banaezinezko uztarrria. Paisaia kulturala da iraunkorra den bakarra eta iraunkortasuna paisaia kulturaletan soilik eman daiteke. Iraunkortasunak soziala, ekonomikoa eta ekologikoa izan behar du. Bertan bizi den gizataldearen bizimodua eta ekologikoki bideragarria den ekonomia biltzen ditu paisaiak, paisaia kulturalak. Izan ere: zer da kultura? Txistua jo eta aurrekua dantzatzea? Edo, antzerkia eta opera? Ez alajaina! Kultura, bere arazoei irtenbidea bilatzeko gizarte batek duen gaitasuna da. Paisaia guztietan antzeman ditzakegu bertan bizitako kulturak.

### *Ahoa neurri*

Kultura bakoitzak bere lurraldea mitifikatzeko duen joerak, adibidez euskaldunon «ama lurra» kontzeptuak, paisaia jakin batzuk mito bihurtzen ditu. Mito hauek paisaia kulturalaren izaera okertzen dute. Mitoak garai jakin bateko teknologia batek—eta gehienetan ekonomia batek— paisaian utzi duen adierazpena edo aztarna goratu edo zapuztu egiten du. Baserritar musugorri, irrifartsu, zorionsuaren irudi mitifikatua ikaragarritzko oztopoa da gure benetako paisaia kulturalaz eta bertan jaso dagoen garapen historikoaz jabetzeko. Kanpokoen ikuspegi arrotzak goratutako bukolikotasuna oztopo handia da benetako eta bertako kulturaren paisaiari lotutako jakinduria osatu, indartu, garatu eta etorkizun egokirantz begira jartzeko.

Mitotza honek errealitatea ezkatatu egiten digu. Naturala ez den natura gurtzen du. Gure kulturak milaka urtetan sortutako paisaia ukatzen du, kultura bera eta bere oinarri sendoena zalantzan jarritz. Pagadia, sega-belardiak, mendietako larreak eta abar testigu.

Mentalitate hiritarrak dakarren hiritartu gabeko guneeekiko beldurra (otsoaren bizitokia, basoan galtzeko beldurra, lurrarekin lana egitea lotsagarria da...) paisaia kulturalaz eta bere benetako

garrantziaz jabetzeko beste oztopo bat da. Aldiz, hiritarra konturatu beharko litzateke bere bizimodua eta izana, hain zuzen ere, inguruko baso eta landaguneak emandakoari esker direla, izan. Ekosistemaren emana, hain justu ere. Lehen bezalaxe gaur eta bihar.

Paisaia irakurtzeko diskurtsoetan, ekosistemaren emana oinarri izan beharrean, iraunkortasunaren adiera motzenari helduz eramangarriak ez diren paisaiak jainkotzen dira. Adibidez, egungo kulturen inola ere eramangarriak ez diren sega-belardiei eutsi nahi zaie, eta larre bihurtzea atzerapausotzat jotzen da. Antzerako jokabidea dago mugarritutako basoekin, helburu zuten langintzak abandonatuta ere nola hala kontserbatu nahi dira. Honelako paisaia kultural zehatzak helburu jakin bat gabe mantentzea astakeria da. Sorrerakoa ez bada ere, nolabaiteko arrazoi kultural bat bilatu beharra dago paisaia horiek gure artean izan nahi baditugu.

Paisaia kulturala museo bihurtzeko joera baino egokiagoa iruditzen zaigu berau, eta bere garapen historikoaren interpretazioa egiteko gune bezala antolatu eta mantentzea. Interpretazioak nondik gatozen hitz egiten du eta gero eta beharrezkoagoa den identitateaz ari da.

Paisaia kulturalak gure ondare guztiez daki. Bertan jasota daude milaka urteetako

gure aurrekoen arrastoak, aitzurkadak eta urratsak. Hau barneratzeak eguneroko bizimodua eta etorkizuna hobeto antolatu eta bizitzen lagunduko digu. Honela lurraldea gure bizitzaren beharrezko parte dela jakingo dugu. Bizi dugun hiria eta bizi gaituen paisaia eta lurraldea bat dira, banaezinak dira. Kalea, landa ingurunea, mendia, itsasoa... denak bizimodu baten, kultura baten lurralde bera dira.

### *Azpiarmonian*

Euskal Herriko paisaia belaunaldiz belaunaldi landuz sortutakoa da; mendeetan finkatutako ohiturek eta erabilitako teknika kulturalak eratu dute paisaiaren diseinua; eta beti nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta industriaren, azken batean, ekonomiaren garapenaren agindupeko dela kontuan izan behar dugu. Batzuetan nekazaritzak edo abeltzaintzak, besteetan basogintzak edo industriak, edo merkataritzak, edo turismoak, edo... eragin nabarmenagoa izango dute, baina beti, garai guztietan arlo hauetako bakoitzean garatzen den teknologiarik eragingo du, batez ere, paisaiaren norabidean.

Euskal Herriko paisaia batzuk beste garai batzuetako gizarte eta ingurumenaren arteko armonia baten agerkeria dira. Historian gertatzen den prozesua errepikatuz, garai

haietako bizitzaren eta kulturaren moldeak galtzen ari diren garaiotan, paisaiari gero eta balore handiagoa dagokio. Ikuspegi honek, lehengo arrotasuna galduaraziz lurraldeari kultur izaera aitortzen dio: kultur erreferentzia izatera darama, bizimodua zen batena.

Gaur egun, landa guneeetan bezala hiritartuetan, ingurumenarekin hartu eta emanean oinarritutako bizimodu eta kultura berriak sortzea nahitaezkoa da. Hauxe da Paisaia Kulturala izenak bildu nahi duen gaur egungo ekimenen izaera: lurraldea eta giza ekimenak paisaian uztarturik sorturiko paisaia kulturala.

### *Bai ala bai*

Teknofilia eta teknofobiaren jarraitzaileen arteko ageriko borroka, bizimodu ekologikoago baten aldeko joera gero eta zabalduagoa, zero garapen edo garapen negatiboaren aldeko jokabide politiko-ekonomiko hasiberriak, kultur identitatea eta honek dakarren auto-estimua gizarteetan hartzen ari diren indarra, eta abar dira etorkizuneko paisaia kultural egokien oinarri. Paisaia kultural hauek, ekosistemaren emana izango dute beti muga, non ahal den neurrian, oinatz edo aztarna ekologikoa izatera hurbilduko baita.

### *Gu, herria, paisaia*

Paisaia bakoitza lurralde horretako ingurumenak nozitu dituen gizakiaren eraginaren ondorio zuzena da. Beste kulturetatik egokitu ditugun nekazaritza, abeltzaintza, eraikuntza eta abarretarako teknologiek hor diraute gure paisaian, gure kulturaren. Kultura guztiek, geurea barne, erresistentziarako, iraupenerako, ez ahitzeko joera dute; paisaia guztiek, geurea barne, bezalaxe. Euskaldunon kultura osatzen ari den eran gure paisaia aldatzen ari da. Gure paisaietan gure izaeraren garapena jaso dago eta jasotzen ari da; gure kemenak, gure negarrak, gure zalantzak, gure irrintziak.

Paisaia gara gu, paisaia besterik ez da herria.

### *Adiera bat, mila ondorengo*

Biltzen gaituen paisaia ulertzeko, sentitzeko eta geure egiteko, lurraldea diseinatzeko eta antolatze edo komunitate baten etorkizun sozioekonomikoa bideratzeko oinarria paisaia kulturalaren apustuan datza. Hona hemen adibide bat, paisaia kulturalaren adiera baten uzta: baratze-lorategi txiki baten diseinua.

*Antzuolarren mairubaratzea:*

Bost pisuko etxetzarrak hiru aldetatik, errepide nagusia laugarrenetik eta berdegune karratu ziztrin laua erdigunean, zerura begira. Berdegune xalo eta atsegin baten zain dauden bizilagunak, etxekotzeko prest dagoen eremu arrotza, ahaztuta dauden paisaia kulturalaren aztarnak... erronka bati aurre egiteko erne dauden paisajistak.

Lorategia antolatzeke diseinuaren oinarria Antzuolako herri-guneko lorategi hau, antzuolarren arbaso izan diren bizilekuekin lotzetik abiatzen da. Diseinuak lurra eta zerua lotzen dituzten cromlech edo mairubaratzeek nahiz saroi, korta edo olek (antzuola) paisaia sortu izan duten forma biribil perfektua jasotzen du, biribila betikotu eta eterno egiten duen espiralaren bidez irudikatuta. Lasaitasuna, atsedena, irudimenari abiada emateko beta, lagunaren goxotasuna, alabaren lehen urratsa... bizitzak lekuko izango duen mairubaratzea.

Lorategiaren lau alboetatik barrenera, lau ertzetatik abiatuz mendixka bat irudikatu da eta erdigunean, erabiltzaileak biltzeko espiral forman zabaltzen den leku zabal eta biribil bat prantatu. Mendixkaren muinoetan sei harri txapal jasotzen dira Antzuola inguratzen duten sei harrespilen norabidea bertaratuz, eta bakoitzak dagokionaren izena zizelkatuta darama.

Antzuola herri izatea ahalbidetu zuten garai bateko haien indarra hemen batzen da, hemen bildu eta bat egiten da. Zuhaitz eta zuhaixka ezberdinez, bueltako mendixkan sortutako basoak, lorategia bere inguruko etxe-bloke arrotzetatik aldendu eta cromlecharen dimentsioetan barneratzen du, herritar-erabiltzailea bere baitaratzen du. Zurezko banku eta aulkiak, lainoen formak irudikatzen dituen hormigoizko egonlekua, norbera etzateko belardia, giza-habiaren itxurako estalpea... zain izango dira gaurko herria eta aurreko paisaia kulturala betiko eta betiko espiralean lotzeko.



